

Euskararen normalizazioa eta
erabilera epaitegietan

Lan monografikoa.

13/01/2012

ANE IRAGI

I.-SARRERA.

Lan honen bitartez euskarak gaur egun justizia administrazioan eta epaitegietan duen normalizazio-maila eta erabilera zein den azaltzen saiatuko naiz. Lehenbizi agertuko dut zein izan den euskara indartzeko pausu garrantzitsuena.

Horrez gain egun duen egoerara heltzeko aurrera eramandako ekimen garrantzitsu batzuk aipatuko ditut, bereziki justizia esparruko dokumentuen eta idazkien alorrekoak eta baita arlo honetan euskara sustatzeko egindako itzulpenen eta eratutako terminologia juridikoaren ingurukoak ere bai.

II.-HISTORIAN ZEHAR EUSKARAK IZAN DUEN GARRANTZIAREN IKUSMIRA OROKOR BAT.

Hasiera batean, ikasgaiko ariketa batzuk egitean ikusi dugun bezala, euskarak ez zuen lekurik administrazio eta zuzenbide arloan. Hala ere, urteak aurrera joan ahala, azken 30 urte hauetan, lan handia egin da euskarak arlo honetan indarra hartzeko.

Euskararen berdintasun edo ofizialtasuna, nolabait esateko, 1978ko Konstituzioarekin etorri zen, bertako 3.artikuluari oinarrituz. Bertan argudiatzen da gaztelera estatuko hizkuntza ofiziala izango dela eta denek ezagutu behar dutela eta erabiltzeko eskubidea izango dutela. Hala ere 3.2.artikuluari ikus dezakegu euskarak estatuan duen lekuari erreferentzia egiten dion esaldia: “gainontzeko hizkuntzak dagokien Autonomia Erkidegoetan ere ofizialak izango dira”. Beraz, hori oinarritzat hartuz euskara onartu egin zen, urteetan zehar izan zuen zapalkuntza baztertuz.

Konstituzioaz gain Gernikako Estatutuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera ere ikus dezakegu EAEn hizkuntzaren inguruko ofizialtasunaren erreferentzia, euskara eta gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak direla esaten baitu.

Euskararen Erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak aitortzen duenez, herritar guztiek dute euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioarekiko harremanetan (6.1 artikulua).

III.- EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA EPAITEGIETAN ETA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN.

Esan bezala, EAEan epaitegietan euskara erabiltzeko eskubidea du herritar orok. Euskararen Erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak aitortzen duenez bere 9.1 artikuluan, Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

Egungo egoerari dagokionez nahiz eta Justizia Administrazioan euskara ez dagoen oraindik normalizatuta, azken urteetan bere egoera hobetu egin da. Horren adibidea dira *epaibik* eman dituen estatistikak. Horren aburuz, hizkuntzaren erabilera nabarmen handitu da, berau argudiatzeko bi eremu aztertuz:

a).-Bulego judizialetan: agiri elebidunen emisioa sustatu da eta horien erabilera areagotzen ari da egunetik egunera.

b).-Bake epaitegietan: bi hizkuntzetan izapidetzeko aukera ematen duen aplikazio informatiko baten erabilera bultzatu da, eta horri esker bake-epaitegiek agiriak bi hizkuntza ofizialetan emititzen dituzte.

Dokumentuei dagokienez, *epaibik* azaleratutako albisteek diotenez, 2011.urtean Justizia Administrazioan euskaraz eta gaztelaniaz atera ziren dokumentuen kopuruak igo egin ziren (%35era iritsiz guztira). Beste datu esanguratsu bat da, herritarrek zuzenean jasotzen dituzten ereduetan (zitazioak, jakinarazpenak, ...) jasotzen direla emaitzarik onenak, izan ere ia gehienak elebidunak direlako, bereziki jakinarazpenetan.

Testuliburuekin berdin gertatzen ari da gero eta itzulpen gehiago aurkitzen ditugulako, geroago azalduko dugun entitateek aurrera eramandako lanei ezker.

Honekin ikus dezakegu euskarak justizia administrazio eta epaitegietan garrantzia hartu duela eta normalizaziorako bidea daramala.

IV.-GAUR EGUNGO EGOERARA HELTZEKO AURRERA ERAMANDAKO EKIMEN ESANGURATSUENAK.

Euskararen normalizazioerako dekretu esanguratu bat 174/2010 Dekretua dugu, arau-esparrua eta printzipioak oinarri dituelarik. Haren xedea da hizkuntza normalkuntzako prozesuan aurrera egitea Justizia Administrazioaren eremuan. Hori gorpuzten hasi da berriki onartutako azaroaren 3ko 1/2009 Lege Organikoari esker. Lege horrek Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatu du, eta Bulego Judizial berria ezartzeko legeria prozesala eraldatzen duen azaroaren 3ko 13/2009 Legearen osagarri da. Testu arautzaile horiek, Justizia Administrazioaren zerbitzuaren prestazioan egindako plangintza burutu dute.

Azken finean aldaketa guzti hauen helburua zera da: herritarrek hizkuntza propioa erabiltzeko duten eskubideari behar bezala erantzutea, eta, bestetik, hizkuntzak arlo judizialean duen zabalkunde soziologikoa bultzatzea.

Lege dekretuez gain badira euskara justizia administrazioan eta epaitegietan normalizatzeko aparteko lanak ere. Honen adibidea UZEI dugu, honen helburua euskara mundu modernora egokitzea delarik, eta zuzenbideari dagokionez, euskarazko terminologia juridikoa eraikitzen lagundu du eta testu juridikoak landu ditu.

UZEI-k bereziki itzulpengintza juridikoan lan handiak egin ditu bere biziko 33 urteetan, baita terminologia juridikoari dagokionez ere. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Legelarien Euskal Kontseiluarekin elkarlana egiten dute eta orain arte euskaratu dituzten batzuk hauexek ditugu esaterako: prozedura zibil eta kriminaleko idaki-ereduak. Horrez gain aipagarri da 1996.urtean auzitegietako agiriak euskararazten hasi zirela. Terminologia juridikoari dagokionez, honen normalizazioan aurrerapauso handiak egin dira ere.

Beraz, epaitegietako agiriak normalizatzeko batzordeak egindako lanak garrantzi handia du gure eremurako eta kontuan hartu beharrekoa izango da.

V.-GOGOETA PERTSONALA.

Argi dago orain dela urte batzuekin konparatuta euskara juridikoaren egoera asko hobetu dela EAEn. Berau bereziki, euskara juridikoa lantzen duten erakundeei esker lortu da, terminologia eta itzulpengintza juridikoaren inguruko lan anitzak egin dituztelako. Hau dela eta, haien lana benetan ezkertzekoa dela deritzot, erakunde hauek gabe gure lana askoz ere zailagoa izango litzatekeelako, oraindik.

Terminologia egokiaren eratzea eta dokumentuen itzulpenak areagotzea ekintzarik garrantzitsuenetarikoa dela uste dut, justizia administrazioak herritarroi bidalitako dokumentu elebidunak kontuan hartuz ere bai. Azken hauekin herritar oro konturatzen da euskarazko zuzenbidea dagoela eta honek garrantzia du. Honek garrantzia duela esaten dut, askotan horrelako dokumentuak euskaraz ez ikustean indarririk ez duela uste dutelako pertsona askok eta orduan ez dute euskararen benetako garrantzia ikusten; ez dute ikusten euskara hizkuntza bat dela eta gainera zaharrenetarikoa, eta hori triste da oso.

Lanean jarraituz eta hizkuntzaren aldeko borroka eginez jarraituz azkenean justizia arloan euskararen normalizaziora helduko garelakoan nago.